

# EAE-N HAURRENTZAKO, NERABEENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO HEZKUNTZA-AISIALDIKO POLITIKETAN, ZERBITZUETAN ETA PROIEKTUETAN AURRERA EGITEKO 9 ERRONKA.

# 9 RETOS PARA AVANZAR EN LAS POLÍTICAS, SERVICIOS Y PROYECTOS DE OCIO EDUCATIVO EN LA CAE CON INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD.



ASTIALDI HITZALEKUA

**ASTIALDI HITZALEKUA** eragileen komunitate bat da, zuzenean edo zeharka EAEko haurren, nerabeen eta gazteen hezkuntza-aisialdiko garapenak bultzatzen dituena zenbait testuingurutatik eta ikuspegitatik (esku-hartzea, dinamizazioa, ikerketa, trebakuntza…). Elkartzeko, ezagutza sortzeko, lankidetzan aritzeko eta proiektuak eraikitzeko gune bat da. Arlo askotako eragileak ditu: gizarte-ekimeneko erakundeei lotutakoak, zerbitzu eta administrazio publikoetakoak, zerbitzuak ematen dituzten erakundeetakoak, unibertsitateetakoak, lanbide-heziketakoko ikastetxeetakoak, haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako baliabide eta proiektu espezializatuetakoak, familiak, dinamizazio komunitariokoak…

Hezkuntza-aisialdiko zerbitzuak eta proiektuak garrantzitsuak dira Gazteriaren Legean eta Haurren eta Nerabeen Legean jasotako haurren, nerabeen eta gazteen eskubideak bermatzen laguntzeko. Ahalmen handiko gizarte- eta hezkuntza-tresna dira haurren, nerabeen eta gazteen prebentzioari, babesari, sustapenari eta parte-hartzeari dagokienez.

**ASTIALDI HITZALEKUAk 9 ERRONKA planteatu ditu EAE-N HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN HEZKUNTZA-AISIALDIKO POLITIKETAN, ZERBITZUETAN ETA PROIEKTUETAN AURRERA EGITEKO,** GJHen esparruan, eta ikuspegi hauek zainduz: ikuspegi intersekzionala, giza eskubideak, generoa, dibertsitatea, berdintasuna eta inklusioa, komunitatea, kulturartekotasuna, klimaren, kulturaren eta hizkuntzaren kontzientzia, ikuspegi teknologikoa eta digitala, ezagutza eta berrikuntza.

**ASTIALDI HITZALEKUA** es una comunidad de agentes que desde contextos y ángulos diversos (intervención, dinamización, investigación, formación,…) de manera directa o transversal contribuyen a los desarrollos del ocio educativo con infancia, adolescencia y juventud en la CAE. Un espacio de encuentro, generador de conocimiento, cooperación y construcciones. Agentes vinculados a entidades de iniciativa social, servicios y administraciones públicas, entidades prestadoras de servicios, universidades, centros de formación profesional, recursos y proyectos especializados para la infancia, la adolescencia, la juventud, las familias, la dinamización comunitaria,…

Los servicios y proyectos de ocio educativo son espacios relevantes para contribuir a los derechos de la infancia, adolescencia y juventud contenidos en la Ley vasca de Juventud, y en la Ley vasca de infancia y adolescencia. Instrumentos socioeducativos de gran potencial para la prevención, protección, promoción y participación de la infancia, adolescencia y juventud.

**ASTIALDI HITZALEKUA plantea 9 RETOS PARA AVANZAR EN LAS POLÍTICAS, SERVICIOS Y PROYECTOS DE OCIO EDUCATIVO EN LA CAE CON INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD,** en el marco de los ODS, con enfoque interseccional, de derechos humanos, de género, diversidad, igualdad e inclusión, comunitario, intercultural, de conciencia climática, cultural y lingüístico, tecnológico y digital, de conocimiento e innovación.



## 1. ERRONKA. HEZKUNTZA-AISIALDIA: HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO ZUZENBIDEA ETA TRESNAK.

Haurren, nerabeen eta gazteen eskubideak bermatzeko tresna bat da hezkuntza-aisialdia. Arreta berezia eta espezifikoa jartzen zaio hezkuntza-aisialdirako eskubideari. Hezkuntza-aisialdirako eskubidea herritar guztientzat bermatu behar da, egoera guztietan.

Horretarako, zerbitzu eta proiektu unibertsalak, egonkorrak, iraunkorrak eta kalitatezkoak garatu behar dira komunitatean, garapen pertsonala, komunitarioa eta tokikoa bultzatzeko, alderdi hauetan heziz: gaitasunak eta balioak, parte-hartzea, aukerak sortzen dituen bizikidetza…

Lurraldeari kohesio osatua eman nahi zaio hezkuntza-aisialdiaren bidez, alderdi sozialean, kulturalean, kirolean, osasungintzan… Horretarako, hezkuntza-aisialdiko eragileak zabaldu behar dira udalerrietan eta tokian-tokian.



## RETO 1. OCIO EDUCATIVO: DERECHO E INSTRUMENTO PARA GARANTIZAR LOS DERECHOS DE INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD.

El ocio educativo es un instrumento o herramienta para garantizar los derechos de niños, niñas, adolescentes y juventud. Con una mirada especial y especifica del derecho al ocio educativo. Este derecho al ocio educativo será garantizado y accesible para toda la ciudadanía en cualquier situación.

Desarrollando servicios y proyectos universales, estables, permanentes y de calidad, en la comunidad, para potenciar el desarrollo personal, comunitario y local, mediante la educación en competencias y valores, la participación y la convivencia generadora de oportunidades…

Se pretende que el ocio educativo cohesione al territorio de manera integral; en lo social, cultural, deportivo, sanidad,… Desplegando en los municipios/ en lo local, desde la proximidad, agentes de ocio educativo.



## 2. ERRONKA. HEZKUNTZA-AISIALDIA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN APUSTUA.

Euskal administrazio publiko guztiek hezkuntza-aisialdiko proiektuen bideragarritasuna eta bizitasuna bermatzea, behar adinako finantziazioarekin. Hezkuntza-aisialdiak indibiduoaren, komunitatearen eta gizartearen garapenean duen balioa eta haurrak, nerabeak eta gazteak babesteko eta sustatzeko egiten duen lana azpimarratzeko eta aintzatesteko.

Hezkuntza-aisialdia “politika gogor”ekin bateratzea, bai legediaren bidez, bai agenda publikoan lehentasuna duten ardatz-politika eta -edukietan txertatuta. Izan ere, aisialdiko hezkuntza funtsezko espazioa da bizitzarako eta enplegurako



## RETO 2. OCIO EDUCATIVO: APUESTA DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS.

Que todas las administraciones públicas vascas apoyen y garanticen la viabilidad y la vitalidad de los proyectos de ocio educativo con suficiente financiación económica. Como forma de poner en valor y reconocer lo que aporta el ocio educativo en el desarrollo individual, comunitario y social y su labor como garante de la protección y promoción de la infancia, adolescencia y juventud.

Alinear el tiempo libre educativo a las denominadas “políticas duras” tanto mediante legislación como vinculándolo a las políticas y contenidos nucleares y priorizados de la agenda pública. Porque la educación en el tiempo libre es un espacio insos-

ezinbesteko gaitasunak lantzeko eta sustatzeko.

Eremupublikoarenetagizarte-ekimenarenartean aliantzak sustazea eta bultzatzea. Lankidetza-esparru egonkorrak eta koherenteak sortzea zerbitzuak sustatzeko, arautzeko eta finantzatzeko.



### 3. ERRONKA. HEZKUNTZA-KOMUNITATEA SAREAN.

Hezkuntza-ekosistemak eta -komunitateak sortzea eta eraikitzea auzo, udalerri eta lurralde bakoitzeko eragile eta baliabideen artean, lankidetzan jardunez. Eragileen eta sareen artean aliantzak bultzatzea eta eraikitzea, premiak identifikatzeko eta proiektuak lantzeko; hau da, batera sortzeko.



### 4. ERRONKA. BIZITZA ZAINTZEA. BIZITZAK ZAINTZEA.

Haurrak, nerabeak eta gazteak babesteko espazio seguruak sortzeko lan egitea, haiek zaintzeko, babesteko eta tratu onak bultzatzeko, prebentzioaren bidez eta ohitura onak, osasun mentala eta hezkuntza emozionala bultzatuz.

Hezkuntza-aisialdian oinarrituta, Euskadiko auzo, udalerri eta lurralde historiko bakoitzeko haur eta nerabe guztietako bakoitza zaintzea, dagokion bizitzako unean eta dagozkion egoera pertsonaletan.



### 5. ERRONKA. AINTZATESTEA ETA IKUSGAI EGITEA. INPAKTUA DUEN KOMUNIKAZIOA.

Hezkuntza-aisialdiko jarduerek duten garrantzia aintzatestea. Hezkuntzako denbora librearen (HDL) helburuak eta ekarpenak ikusgai jartzea. HDLaren hezkuntza-potentzialak eta -funtzionaltasunak aintzatesteari dagokionez aurrera egitea.

layable para el trabajo y la promoción de las competencias imprescindibles para la vida y el empleo.

Fomentar y promover alianzas entre el ámbito público y la iniciativa social. Generar marcos estables y coherentes de colaboración para la promoción de servicios, regulación y financiación de los mismos.



### RETO 3. COMUNIDAD EDUCADORA EN RED.

Generar ecosistemas y construir comunidades educadoras de manera cooperativa entre los agentes, recursos de cada barrio, municipio o territorio. Fomentar y construir alianzas entre agentes y redes para identificar necesidades y articular proyectos; para co-crear.



### RETO 4. CUIDAR LA VIDA. CUIDAR LAS VIDAS.

Trabajar por la creación de espacios seguros de protección a la infancia, adolescencia y juventud que cuiden, protejan y fomenten los buenos tratos, a través de la prevención y la promoción de los buenos hábitos, salud mental y educación emocional.

Cuidar en cada barrio, en cada municipio y en cada territorio histórico de Euskadi, desde el ocio educativo, a cada niña, niño y adolescente, en su momento vital y circunstancias personales.



### RETO 5. RECONOCIMIENTO Y VISIBILIDAD. COMUNICACIÓN CON IMPACTO.

Reconocer la relevancia de las actividades de ocio educativo. Visibilizar las finalidades y aportaciones del TLE. Avanzar en el reconocimiento de las potencialidades y funcionalidades educadoras del TLE.

HDLaren hezkuntza-potentzialen eta -funtzionaltasunen inguruan sentikortzea gizartea. Komunikazioa eta marketina indartzea, egiten den guztia ikusgai jartzeko.

Sensibilizar a la sociedad de las potencialidades y funcionalidades educadoras del TLE. Reforzar comunicación y marketing, para visibilizar todo lo que se hace.



## 6. ERRONKA. HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN PARTE-HARTZE AKTIBOA.

Haurrei, nerabeei eta gazteei entzutea. Haien “hizkuntzan” hitz egitea. Bakoitzaren biziunean jartzea. Ikaskuntzak pertsonalizatzeko. Haiek izan daitezen protagonista, eta ez kontsumo-jarduerak. Haurrek, nerabeek eta gazteek proiektuak sortzen parte hartzen dutela bermatzea, eta espazio egonkorrak eta iraunkorrak sortzea eta erraztea.



## RETO 6. PARTICIPACIÓN ACTIVA DE LA INFANCIA, ADOLESCENCIA Y JUVENTUD.

Escuchar a la infancia, adolescencia y juventud. Hablar en “su idioma”. Situándose en cada momento vital. Para personalizar los aprendizajes. Para que ellos sean los protagonistas y no las actividades de consumo. Asegurar la participación de la infancia, adolescencia y juventud en la articulación de los proyectos, creando y facilitando espacios estables y permanentes.



## 7. ERRONKA. FAMILIEKIN.

Familiak hezkuntza-aisialdiko proiektuak eta prozesuak eraikitzeko, garatzeko eta ebaluatzeko prozesuei lotzea.

Familiei beren guraso-gaitasunetan lagunduko dieten gizarte- eta hezkuntza-ekimen berriak antolatzea.



## RETO 7. CON LAS FAMILIAS.

Vincular a las familias en la construcción, desarrollo y evaluación de los proyectos y procesos de ocio educativo.

Articular nuevas iniciativas socioeducativas con las que apoyar a las familias en el ejercicio de sus competencias parentales.



## 8. ERRONKA. ERREFERENTZIAZKO ERAGILEAK: PROFESIONALAK ETA BOLUNTARIOAK.

Hezkuntza-aisialdiko profesionalak eta boluntarioak aintzatestea: prestakuntza, gaikuntza, garapen profesionala, kategoria profesionalak, tituluak…

Hezkuntza-aisialdiko proiektuetan kontratatutako langileen lan-baldintzak hobetzea, lanbidea duin bihurtuta eta kategoria profesionalak lanpostuaren funtzioen arabera errespetatuta.



## RETO 8. AGENTES DE REFERENCIA: PROFESIONALES Y VOLUNTARIADO.

Reconocer a los profesionales y voluntarios del ocio educativo: formación, capacitación, desarrollo profesional, categorías profesionales, titulaciones,…

Mejorar las condiciones laborales de las personas contratadas en los proyectos de ocio educativo, dignificando la profesión y respetando la cualificación de las diferentes categorías profesionales con las funciones del puesto.

Ekimen sozialeko / hirugarren sektore sozialeko boluntariotza eta erakundeak indartzea, jarduketa politiko egokien bidez.

## 9. ERRONKA. IKERKETA, OINARRIAK, EUSKARRIAK ETA TRESNA AURRERATUAK.

Ikerketa sortzea. I+G+Bko agendan egotea. Argitalpen eta ebidentzia zientifikoak. Esparru teorikoan, zientifikoan eta akademikoan aurrera egitea. Bi ikerketa-lerro planteatu behar dira. Alde batetik, aldaketa sozialei, aisialdiari, sare sozialen inpaktuari, familiek aisialdiarekiko duten ikuspegiari eta beste alderdi batzuei buruzko datuak emango dituzten ikerketa eta azterketa soziologikoak behar dira. Bestetik, uste dugu hezkuntza-aisialdiko programetan parte hartzeak duen eragina neurtu behar dela, zenbait mailatan: osasun mentala eta emozionala, gaitasunak eskuratzea, gaitasun sozialak, komunitatean parte hartzea…

Ezin ditugu alde batera utzi batez ere COVIDaren ondoren izandako aldaketak, eta garrantzitsua da aldaketa horiek kontuan hartzea haien helburu diren pertsonen eskaerari eta interesei erantzungo dieten hezkuntza-aisialdiko programak sortzeko garaian.

Hezkuntza- eta gizarte-tresnak sortzea: eragileak, lanerako tresnak… Proiektuen eta jarduketen inpaktua neurtzea. Etengabeko elkarrizketa eta lotura bermatzea eragile akademiko eta zientifikoen eta arloko eragileen prestakuntza-baliabideen artean, hezkuntza-praktikaren bidez, hezkuntza-proiektuak eta -zerbitzuak indartzeko, eragileei prestakuntza emateko eta aurrerapen akademikoa eta zientifikoa lortzeko.

Fortalecer el voluntariado y a las entidades de iniciativa social / Tercer Sector Social, en el ámbito del ocio educativo, mediante actuaciones políticas adecuadas.

## RETO 9. INVESTIGACION, BASES, SOPORTES E INSTRUMENTAL AVANZADO.

Generar investigación. Estar en la agenda I+D+I. Publicaciones y evidencias científicas. Avanzar en marco teórico, científico-académico. Planteando dos líneas de investigación, por un lado, se necesitan investigaciones y estudios sociológicos aporten datos sobre los cambios sociales el ámbito del ocio, el impacto de las redes sociales , la concepción de las familias respecto al ocio… Y por otro lado, consideramos necesario medir el impacto de la participación de personas en los programas de ocio educativo, en diferentes niveles; salud mental y emocional, adquisición de destrezas, habilidades sociales, participación en la comunidad….

No podemos obviar los cambios que sobre todo después de la Covid se han producido, y es importante tenerlos en cuenta para generar programas de ocio educativo que respondan a las demandas e intereses de las personas a los que van dirigidos.

Generar instrumental socioeducativo: indicadores, herramientas,… Medir el impacto de los proyectos y actuaciones. Garantizar un diálogo y conexión continua entre los agentes académico-científicos y los recursos formativos de los agentes del ámbito , con la práctica educativa, con el fin de fortalecer los proyectos y servicios educativos , la formación de los agentes y el avance académico-científico.





+info: bulegoa@astialdisarea.eus

ASTIALDI HITZALEKUA